

EAEko HEZKUNTZA SAILAREN FAMILIENTZAKO DEKALOGOA

1. Haurrek **ezin dute ikastetxera joan sukarra (>37°C) badute**. Horrek esan nahi du familiek ikastetxera iritsi aurretik tenperatura hartu behar dietela.
2. **Pertsona bakarra joango da ikastetxera ikaslearen laguntzaile legez**, eskola-egunaren hasieran edo amaieran, eta, ahal den neurrian, pertsona bera izango da beti.
3. Laguntzaile hauek ikastetxean sartu ahal izateko, aldeztu aurretik hitzordua jarri beharko dute edo horretarako baimena izan beharko dute.
4. **Laguntzaileak ezin izango dira inguruan geratu**, taldekatzeak eratu.
5. **Haur guztiek izan beharko dute beren maskara**, eskola-egunean erabiltzeko higiene-baldintzak bermatuko dituenak.
6. **Familiak lankidetzan** arituko dira ikastetxeak oinarrizko higiene-ohiturak babesteko eta errazteko helarazitako jarraibideekin, hala nola: ikastetxeko seinaleak errespetatzea-maskara erabiltzea-eskuak garbitzea-aretoak aireztatzea-bizikidetzatalde egonkorreko kide izatea
7. **Ikasle batek sintomak baditu ikastetxean**, familiari jakinaraziko zaio; beraz, kontakturako beharrezkotzat jotzen diren telefono zenbakiak eman beharko dira (bat baino gehiago ematea gomendatzen da).
8. **Ikasleak sintomak baditu etxean**, familiak tutorea jakinaren gainean edukiko du eta aldaketa esanguratsuak jakinaraziko dizkio.
9. Familiak, ikasleak ikastetxetik kanpo egiten dituen **eskolaz kanpoko jardueri buruzko informazioa emango dio ikastetxeari**, trazabilitate-arrazoiengatik eskatzen bazaio.
10. Ikasleen gurasoek edo tutoreek **eremu emozionalari buruz egoki deritzoten informazio guztia** helaraziko diote beren semearen edo alabaren tutoreari, eremu horretan COVID-19 testuinguruari lotutako gabezia/zailtasunen bat aurreikusten denean.